

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

200n. zenbakia / urrilla
1995



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



FCO. GARATE JOSULAGUN ANAI ZORIONDUNA

- EUSKALDUNA
- DEUN IZATEKO BIDEAN
- BERE EGUNA: IRAILLAREN 10'EAN

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK

1995-96 I KASTURTEA

OGEI TA ZORTZI GARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 15.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

ASIEREA: URRILLAREN 16'EAN

28.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES **Y** CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 15.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

COMIENZO: 16 DE OCTUBRE

LAGUNTZAILEA

COLABORA

BBK

200 "ZER" = 200 ALKAR-IZKETA

ALDIZKARIA ALKAR-IZKETA DA

Gaur egun alkar-izketa asko entzuten doguz eta sarritan min egitekoak be bai: guztiak batera berba egiten, alkar iraintzen, jaramon gitxi egiten.

Gure aldizkaria be alkar-izketarako bide bat da, baiña alkar-izketa egokitu baterako: Emen ez dago alkar-iraintzerik, emen ez dago batera berba egiterik... Bakoitxak berea esaten dau idazten dauanean eta besteena entzuten dau irakurten dauanak.

Eta alkar-izketa orren atzean Bizkai'ko euskerea erabiltearen aide ainbeste urte lanean daroazan EUSKERAZALEAK ALKARTEA dago. Alkarte onen ardurea izaten da alkar-izketa on eratzea eta aldizkari batek beragaz daroazan eginbear eta burukomin aundiak lepoan artzea.

NORTZUK GARAN

Lenengo ta bein euskaldunak, bai, euskaldunak gara eta oraindiño bizi gara. Ez dakigu noiz arte. Inguruko ainbat sailletatik datorkuz erasotsailleak: politikan, izkuntzan, eleizan... baiña bizi gara.

Eta Euskalerrriaren barruan, gu bizkaitarrak gara eta Bizkai'ko euskerea aintzat artzea ta bizirik zaintzea eskatzen dogu. Ez da asko eskatzea, baiña orixe be ukatu egiten dauskue, batez be "beso bat edo anka bat kendu arren gorputz osoa bizirik" aterako dabela uste daben euskaldunak eta era berezian bizkaitarrak.

Orregaitik 200 alkar-izketa oneik, geienak, bizkaieraz izan dira eta esker onez artzen doguz gugaz bat egiten daben gipuzkoar zintzoak.

Eta alkar-izketa-mundu zabal onen oiñarrrian poz eta adoremioille doguzan erakunde bi daukaguz: EUSKERZALEAK eta EUSKERAZAINTZA. Euskerazaleak alkarteak amabostero egiten dau bere batzarra eta EUSKALTZAINDIAK illero Deba'n, giputz eta arabarrakaz batera.

ELBURUA ZELAN DOAN

Esan dogu gure elburu nagusia Bizkai'ko euskerea bizirik atera eta zaintzea dala. Baiña zelan goaz elburu on lortzeko bidean?

Ez ondo. Toki askotatik entzuten dogu, goian naiz bean, errazoa daukazue eta jarraitu. Baiña on esaten daben askok ez dabe bizkaieraz idazten, ez dabe bizkaieraz itz egiten etxean baiño, euren aldizkarietan ez dauka bizkaiereak lekurik, laguntzak urri emoten dauskuez...

Dana dala asko gara elburu au lortzeko zintzo jokutzen dogunak.

Legea gure aide daukagu. Esaterako Euzkadi'ren Araudian bidea zabalik itzi zan Euskaltzaindia aolkulari bakarra izan ez zedin, baiña gero zer? Euren aolkuak dira baliokoak eta ez bes-teenak.

Legea ta eskubideak gure aide dagoz. baiña bete-eragilleak ez dauskuez emoten berba onak baiño. Oso urriak dira. eta geroago ta urriagoak, artzen doguzan laguntzak: Jaurlearitzak. Aldunditik, Bilbao'ko Udal Batzetik eta BBk Aurrezki-Kutxatik. Dana dala, eskerrak eurai.

* ,'

ZER EGIN ?

Ez daukagu beste biderik antxiñako esaldi zarrak diñoana baiño: "Ekin eta jarrai".

Or dagoz, ekiñaren ezaugarri lez, 200 ZER'en zenbaki.

Eta 200'era eldu garan ezker, egin daigun atsedeen-aldi bat:

– Urrengo zenbaki bat edo bi azkenengo 100 zenbakien aurkibidea agertzeko izango dira, naizta zerbait geiago, bearrezko dana, agertu.

– Gauza egokia litzake idazleakaz batzar bat egitea, eta zergaitik ez, senide-artekeo bazkari hat? Ille pare bat daukagu arazoa aztertzeko, agertu zuen eritxiak!

ZER

OARTXU BATZUK

Ogei ta zortzigarren *ikasturtearen iragarkia ipiñi* dogu zenbaki onetan. Ikasurtea urrillaren 16'an asiko eta ba-daukazue astia euskerea ikasten asi gura dozenok. Asi udeak izten dauan nagikeria kentzen. Ian onetara gogotsu sartzeko.

Auxe da gure ZER onen 200n. zenbakia. Jazoera au pozgarria da gure irakurleentzat. idazleentzat eta laguntzaileentzat. Ekin eta ekin onagiño eldu gara!

200 zenbakiak betetzen diranean, aurkibide ondo osotu bat agertu nai dogo. Orrelan egin gendun 100n. zenbakiaren ondoren be. Gure adiskide on eta zeatz bat dabil Ian au egiten, KEREXETA'tar Jaime.

Ori dala-ta, zenbaki bat edo bi orretarako beste barik izango dira. Idazleren batzuk zuen idaz-lanak argitaratuta ikusteko itxaron-bearra izango dozue.

Eskerrik asko guztioi eta aurrera geure bidetik!

ZER

ARGIUNEAK



Langabezia eta geldituak

—Len, baserrietan mutikoak 7 urterekin ipintzen ebezen lanean; beiak zaintzen eta itzulan be bai...

—Etxeari laguntzen.

—Kalean, amairu urterekin botaten ebezen fabriketara, ura ekarten edo botijoa eramaten...

—Orain ez dago orrelako konturik; estudiatzea da gaurko lana.

—Eta, artarako balio ez dabenak?

—Langabezien kopurua aundiagotzen doa.

—Eta geldituerena be bai.

—Bien artean zer diferentzi dago eta zer alde?

—Lanik ez edukitzea da bat eta geldi egotea, beste bat.

—Ez dot ulertzen zer esaten dozun be.

—Ara, dozena erdi bat urte badira, oso urrutiko baserri batetik, sei neska-mutil etorri zirala erri onetara eta, inor be ez da geldirik gelditu; guztiek topa dabe zer egiña.

—Lanean txikitatik oituta egongo ziran da...

—Ba, orixe esaten eban emengo bizar-kentzalle zaarrak: "El que saiatu / coge pez / el que no saiatu / bat ere ez".

Posta-bulegoan

—Mutiko, eskutiz oneri beste sei-llu bat imiñi bear deutsozu.

Zergaitik, jauna?

—Pixu geiegi daualako.

—Eta, orregaitik beste sei-llu bat imiñi?

—Bai, beste bat.

Ez al du orrelan oraindik pixu geiago izango?



Ormaiztegi'ko zubia (DEIA: 13-VI-1995)

Zorionak ematekoa da Ormaiztegi'ko erriari.

—Zergaitik?

—1991'ean euren zubi fama-tua zutik irauntzeko eskatu ebalako. RENFE'k burnizko zubi zaarra bota nai eban zementozko berria egin dabenean.



Zer zubi eukien ba?

—Burnizko zubi galanta, orain 130 urte egiña, Paris'ko Dorre Eiffel'en tajuzkoa eta garaikoa. Uste eben Eiffel'ena zala zubi au be.

—Norena da ba?

—Alejandro Lavalley jaunak egin eban. Baditu zementozko bi zutabe 1936'garren urtean egiñak.

—Zertarako ebazan bi zementozko zutabeak?

—Aizkeneko gure arteko gerratean, Zumarraga inguruko langille soldadore batzuek, bi ebagi egiñ eutsozean eta alde aietatik lurrera bota. Frentea Beasain'en egoan eta andik Zumarraga'ra bitartean dago Ormaiztegi'ko zubia...

—Eta, nor jaso eban?

—Beasain'dik aurrera Ormaiztegi artu ehanean, Mola'k berberaren aginduz zementozko zutabe berri oiek jaso ebezen.

—Eta, RENFE'ek bota nai eban?

—Zaartua egoen eta berri bat egin dabe zemento utsez eta korapilloa ortxe sortu da.

—Eta, RENFE'k zer esan dau?

—'Or konpon, Mari Anton', zeuena ba'da, zeuek gorde.

Sanson eta aingerua (Ebazleak 12, 1-25)

—Zergaitik ipintzen dabez aingeruak egokin?

Lur-gañean zaldia da bizkorra, baña zaldia baño bizkorrago da txoria eta txoriak egoak ditu.

—Txoria al da ba aingerua'?

—Aingeru itzak mezulari esan nai dau eta, aingerua agertzen danean beti izaten da mezuren bat, berriren bat, bitartean...

—Posta-gizonek be mezuak daramazte...

—Ba, orixen... postalari da aingerua. Kartero bat; baña, kartero azkarra. Ez ditu mezuak eta kartak gordeta eukitzen aste osoan...

—Orduan, aingerua posta-gizon arma eta bizkorra.

—Orregaitik ipintzen deutsez egoak arintasun ori agertze-ko.



—Eta, Sanson'ek zer ikusi dau aingeruen egoekin?
 —Sanson'en amari aingeru bat agertu jakon `seme bat izango dozu' esanez; baña, ondoren amak onela difiotso here senarrari: 'Gizon bar agertu jat...!'

—Zergaitik sartzen dau aingeru bat tartean?
 —Gizon a, mezularia zalako, albiste bat ekarri eutsolako aingeru deitzen deutso... Esanaldi guztian naasten ditu bi berba onek: aingeru eta gizon.

Bañan, egoak...?

—Histori onen aizken-aldean, Jainkoari antxume bat eskeintzean, sutan gora, garrakin batera, galtzen da zeruan.

—Orrek su-ziri bear leuke izen.



Lan billa

Aizu, baserria lagata kapitalera nator.

—Zertan zatoz?

—Lan ondradu baten billa.

—Lan ondradua?

—Bai, Ian ondradua.

Txo, orretan ez dozu konpetent-zirik izango.

Zer, ba?

—Lan ondradua? Banderilleru sartzen ez ba'zara...

Ost-adarra

—Gaur eguzkitan euria egin dau.

Ost-adarra agertuko zan.

- Bai, zazpi koloretakoa.

— Margo zuria osatzen du ten zazpi margoak.

— Margo zuriak zazpi margo dauz?

— Eguz-


kiaren argi zuriak euriaren tantak igarotzean, barruan dabezen zazpi margoak agertzen dira.

—Gauza ederra da or zeruan agertzen dan mako aundi ori! Guk esaten genduan ze, azpitik pasa ezker mutilla neska biurtzen zala eta alderantziz ere bai.

—Guk, berriz, anak hi ibaietan ebazala zerura ura jasotzeko. Orregaitik edo, euri-adar be esaten jako.

Erroma'ko zubia eta Jainko-zubia be bai.

—Jainko'aren gerrikoa eta itxaso-adar... Orra zenbat izen.



Neskato azkarra

Oto'ren alaba dendari.

—Kandelak zenbatian?

Mari ttunttunek.

—25 pezeta bakoitza.

—Oso galeztiak dira.

—Lau ipiñiko deutsadaz

100 pezetagaz.

_ Ipiñi.



Trinitate Irutasun Donea

—Nola liteke iru Norki eta Jainko bakarra?

—Ori misterio edo eskutuki utsa da.

—Bai, orrekin korpillo guztiak askatzen dira.

Ez dira askatzen, baña sinistu, bai.

Zergaitik sinistu misterioa ba'da?

—Guk amen norki bakoitzeko gizaki bat aurkitzen dogu: Iru norki, iru gizaki. Mundu onetan besterik ez dago; baña, beste mundu batean bai...

—Jesus'ek esan daualako?

—Bai. Bera andik etorri da eta ango berri berak emon deusku.

Berak daki Aita, Semea eta Espiritu Santua, irurak norki, eta Jainko bakarra osatzen dabela.

Baña, egi on ez dogu, bi ta bi lau dirala bezela, sekulan jakingo...

—Ez, egi on beste era bateko egia da.

—Egia, egia da; ez dago besterik.

—Zeure ama nor dan ba'dakizu?

_ Jakingo ez dot, ba?

—Nundik dakizu? Zu an ziñan, baña zeure buruz eta zeure kabuz, zeure ama nor dan be ez dakizu... Orretarako sinismena bear. Ez da matematika utsa. Zeure ama nor dan baño gauza garbiagorik ez dago ez zeuretaz ez besteentzat.

—Danok esaten dabe neure ama nor dan.

—Bai, eta zeuk zeurez ezin jakin dozuna, bestai sinistu bear... Orra sinismenaren bearra; edozertarako.

_ Baña, iru bat izatea nere buruan sartun ezin.

—Ipuitxo bat esango dautzut: Augustin Donea, benetako jakintsua, ei ebillen ondartzan, misterio on ezin argiturik; Iru eta Bat. Artan dabillela ikusi dau mutikotxo bat, itxasokura, targatxo bategaz, zulo batean sartzen. Eta onela galdetu eutson:

—Zertan zabiltza, mutiko?

—Itxasoa sartun nai dot zulo onetan.

—Ez dozu ikusten itxaso aundi ori, zulotxo onetan, ez dala sartzen?

ALBISTEAK

– Eta zuk, Jainko neurrigabea zeure burutxo orretan sartun nai dozu?

Juan Artza



– Nor da Juan Artza?

– Euskal mitolojiako zerki bat: erdi artz eta erdi gizon. Artzen artean ezia eta eun arrobako ingu reajasotzen dau esku bategaz, ogeita amar arruako maillua gañian dabela.

– A, bai; maskaradetan be azaltzen dabe orrelako artza, ardien ondoren ibiltzen dana, arrapatu eta iltzeko asmoz.

– Artzak beti izan dira Pirenee eta Euskalerriko beste mendietan. Euren ezur-ondakiñak geure leizeetan dagoz; eta ez da arritzeko geure folklorean be agertzen ba'dira.

– Pireneeko Arriege inguruan ba'da kobia eta zulo aren zoko illun batean, an dago buztinëzko artza, guztia lantza-zuloz bete; benetako kazka-ezur bat be topa dabe bere oiñetan....

– Ori aztikeria da, eizera urten aurretik egiten ebena.

Ituren -Zubieta'ko Yoaldunck eraman oi dabe euren artean artz-jantzitako gizaki bat... eta Europa erdian be gurtzen eben artza euren artean.

– Orduan esango genduke, Juan Artza siniskeri guzti oien laburpen bat dala.

– Ba, Juan Artza indartsuak, deabruak belarri bat kendu eutsen, burruka latz baten ondoren.

– Eta, deabruak noiztik dauz bi belarri...?

Aurren dilexia eta tontotasuna

(DEIA: 23-VI-1995)

– Geure mutikoa tonto utsa da.

– Zergaitik ori?

– Ezin dau irakurtzen ikasi be... eta, ori tontoa izatea ez ba'da, zer da? Ederrak emon bear.

– Ezin ba'dau ikasi, eziña ez dago bere borondatean.

– Nun, ba?

Bere buruko garunen egoeran: eskubiko aldea, ezkerrekoa baño aundiagoa ba'dau, alperrik ibilliko zara, ez dau sekulan errez izango ez irakurtzen eta ez idazten.

Nik esan dodana: betirako tonto utsa.



– Irakurtzea eta idaztea gizakiaren asierako gauzak dira; orretan nekez ibiltzeak ez dau esan nai beste arazoetan be (sendagintza, arkitektura, matematikak eta abar), tontoa danik; alderantziz...

– Besteak baño bizkorrago?

– Beste erdiak baño bizkorrago izango da. Einstein, Edison, Churrchil, Rockefeller, Agatha Cristie... orrelako `dilexia' izen ei eben eta ez ziran tontoak izan.

– Olan ba'da, zer egin berarekin?

– Sikoloarengana eta izketan erakusteko era berriak dakienai ('logopeda') eraman.

Elur-zuloak

– Izen ori entzunda daukot.

– Urkiola aldean ba egoan bat geure aurtzarroan.

– Bañan, zer da elur-zuloa?

– Orixe, lurrean gizonak egiñiko zulo bat.

– Zulo ori zertarako da?

– Neguko elurra gordeteko.

– Zertarako gorde?

– Orain edozelan egiten da izotza.

– Bai, geure etxeko otzgailluak ugari egiten dau.

Geuk nai baño geiago.

– Etxean izotza eta elur-zuloak, zertarako?

– Tximist-indarra sortu aurretik ez egoen izotza egiterik eta udako galdatan edariak oztuteko, zer?

– Bonbillak soka bategaz lotu eta erre kara.

– Ala bestela, elur-zuloetatik elurra ekarri.

– Eta, elur guztia batera botaten eben barrura?

– Ez, tarteka. Olako tartetean garoa edo belarrak imiñi; ateratzeko mallatan egon dezan eta ez aitz aundi baten antzera.

– Urtuko zan bidean...

– Beti zatiren bat; baño arin-arina ibilli-ta, ondo gorde ezkerre, eltzen zan bazkari aundietan edaria freskatu eta posttrak osatzeko.


Loreen esanaia

– Larrosa gorriak, maitasuna esan nai dau.

– Ori edozeñek daki.

– Eta, iñori klabelin bakarria bialtzeak?

– Ez dakit.



—Joanari pikutara eta neurekin ez kontau.

—Eta, lirio gorriak?

—Neure biotza sutan daukat zeure gomutaz.

—Eta, lirio zuriak?

Zuria izan bedi zeure gogoa eta zeure biotza.

—Eta, bioleta txikiak?

—Madril'eko Violetera'ri galdetu bear; baña, neuk uste ze, apalak direla eta apaltasunik ez dau gaur eguneko sentzunbako iñork maite.



Aitarik gabeko aurrak

—Eme galduen semeak ziran aitarik gabeko aurrak.

— Lenago bai; baña orain...

—Orain, zer?

—Aldi onetan ama bereziak sortu dira.

—Nolako ama bereziak?

—Aitaren berririk jakin nai ez dutenak.

Aitarik gabe nolan sortuko da aurra?

—Beirik geienak be, ez dabe zezenen berri.

—Albaiteruak egiten



deutse lan ori.

—Ba, orren antz-irudi berdin-berdiña.

—Albaiteruak?

—Albaiteruen orde, medikuek.

—Eta, medikuari giza-azia nork emoten deutso?

—Azi-Bankuak dagoz orretarako.

—Eta, Banku orrei, nork?

—Edonork osasun ona ba'dau.

— Arraxua! Ori pagatu egin bear zan lenago...

—Orain, berriz, kobra. Gauzok, kereixen modura, bata bestearekin lotuta dagoz. Ezkontza izaten zan andra-gizonak alkarrekin bizitzeko il arte... Ondoren moda etorri da, ezkondu eta denbora asko baño lenago, bakoitza bere etxera, gura-soengana berriro... Gaurkoz, emakumeak nagusitasuna artzen doian neurrian, moda berri-berria agertu da, gizonik esagutu barik, aurdun...

—Olan ba'da, ama birjiña asko sortuko da baztarretan.

— Maria'k San Jose'ren laguntza eukan; onek, bapez.

Egutegiak

Gure artean 1848'an agertu zan lenengo Egutegia Tolosa'n "Euskaldun Nekazarien Laguna" izenakin.

— Ifar-aldean be, agertu ziran aurrerago politika usaiñeko beste bi edo.

—Serafin Baroja, donostiarrak (Pio Baroja'ren aitak) aterra ebazan beste bi. Bat "Santo Tomaseko Feriya" 1878'garren urtean.

— Eta bestea?


—Ondorengo urtean, 1879'an; baña au erderaz be bazan. Izena: "Almanaque bilingüe". Literatura saillekoak ziran.

—Baña bilingüe...

— Ez dau meritu gutxi garai aretan atarateko. Ona erdizka egiñiko bertso batzuek:

"MERCURIO

Cillar bizia eusqueraz azogue en buen eastellano da metal bat, denetan, el más importante y raro. Ura becela izanic, sin embargo es más pesado beruna ta zinc baño y que el hierro y el estaño. Au Mereurio ba da, un dios en tiempos pasados, gaur metal esan dana, que se saea del einabrio, ta eguzquiaren giran el planeta más cercano... Batzuec an da gu emen el Romance se ha aeabado".



(RIEV. 1994-2. Los inieios de la prensa vasca. Javier Diaz Nocci. Pág. 270).

Agur Yves Cougar

—Nor da jaun ori?

— Ekainillaren 22'an il dan aita domingotar teologo famatu bat.

— Zenbat urte ebazan?

—Kontuak atara: 1904-IV-13'an jaio zan Sedan'go errian (Las Ardenas-France). Teologo aurrerakoia zan eta Pio XII'garrenak naiko astindua.

—Jipoiak beti aurrerakoiei.

Baña, Juan XXIII'garrenak ostera, Vatieano II'go Konziliora ots egin eutson eta teologo oso berezia gertatu zan bertan.

Bere eguneroko eginkizuna teologia zan?

— Europa'ko gerratean preso euki eben alemaniarrek bost urte luze. Bere teologiak iru atal eukazan berarentzat oso maitekorrek eta iru bide oietatik ibilli zan bereiziki.

—Zer atal?

Lenengoa zan, ia zergaitik. Elizari aide egiten zien askok.

ALBISTEAK



—Eta, erantzuna?

—Itxura txarra ematen zielako, eta itxura ori aldatu bear zan. Emen izan ziran Pio XII'garrenaren eraso-aldiak.

—Eta bigarren bidea?

—Elizatik istorian zear aide egindako alkarreekin batasuna bear zala eta alkarrengana gerturatu. Vaticano II'garrenak ezkatzen ebana eta gai oneri buruz egin dau azkeneko BERE "OIKOUMENE" eskutitza Juan Paulo II'garrenak.

—Eta, irugarrena bidea?

—Laikoen teologia; apaiz ez direnen egoera Eliza barruan. Vaticano'tik ona, eta Vaticano bertan, gai au izan da oso garrantziduna... Yvas Congar teologiaren olatuen aparretan ibilli da beti.

—Ori beti izan da arriskutsu.

—Bai, baña ibiltzen jakin bear.

(Vida Nueva. 1-VII-1995)

Ezkurra'ko Iruñarria

—Zutikako arri ori zer da?

—Menhir bat da.

—Eta, zertarako da?

Zertarako zan ez dakit.

—Eta, nun agertzen da?

—Geienetan 'cromlech' deritzan il-obietan.

—'Cromlech' ak zer dira?

—Errautsak gordetzen ditun il-obia.

Asko al daude gure artean?


—Ihar-aldean bai, Gipuzko eta Nafarroa'n gutxi.

—Nolakoak dira?

—Ildakoen errautsak ipintzen dabez eltze batean eta gero lurra bildu zabalgunen batean eta arriegaz koro bat egin; arriak zutik eta arri oien artean agertzen da, noiz-edo-noiz, orrelako zutitako arri aundi bat.

—Ilerrri oietan bakarrik agertzen dira?

—Ezkurra'ko arri onek ez du ematen illerri batean dagoenik; baña, egon ba'da be, ez j akin. Badaude geiago baztaretan eta aldizka mugarri lana be egiten dabe.



chicas guapas para servir, servicio de `toro`.

B.A.

Arropain'go zara, Bartolo?

—Andik etorri zan neure aitaren attitta Lekitto'ra.

—Zer eukan, ba, Arropai n'en?

—Moda-modako ostatu bat; gaur egun edonork imintzen dau atian zer Menú dagoen barruan eta edonork indiar gorrixak...

—Eta, arek zer ipintzen eban?

—Ona zer ipintzen eban: "Barbantzos de Castilla, tenedor de cuatro `ortzes`"

Iqbal Masih

(Vida Nueva. 29-IV-95)

—Amabi urteko gaztetxoa erail dabe Pakistania'n alfonbra-egille mafia-taldekoek.

—Nor zan gaztetxo ori?

—Lau urte ebazala saldu eben gurasoek 16 dolarretan alfonbra-egille orretako baten.

—Zertarako nai eban orrelako ume-txoa?

—Lanean eragiteko **alfonbra-gintzan**. Millaka ume daude

Pakistania'n, esklabuen antzera bizi diranak lan orretan.

—Zergaitik erail eben?

—Zortzi urte esklabu gisan lan egin eta gero, aldaketa baten billa ebillen.

—Iraultza bat?

—Ba, orixe; baña, ez zuten orretako iraultzarik nai eta orregaitik irail eben.

—Alan ba'da, santu berri bat daukagu.

—Norberen bizia ematea ei da maitasunaren agerpenik aundiena eta mutiko kristau onek, bere bizia eman dau lagunen alde.




Gasteiz eta Iqbal Masih
(DEIA: 2-V-85)



- Gasteiz'ko alkatea ez da lo egon.
- Zer egin dau ba Cuerda jaunak?
- Erail dabene umetxo onen brontzezko irudi bat erriaren erdiko plazan ipiñi.
- Arin ibili da.
- Gasteiz'en une aretan egoan Casto Solano irudigilleak egin dau, mutiko baten neurrira.
- Mutiko onentzako da?
- Eta, Pakistanen dauden millaka mutiko aien oorean; baita, munduko baztar guztietan, nagusien mende, zapalduta dauden umetxo guztien gomutaz.
- Badago jende atzeratua mundu onetan...
- Atzeratua eta okerra. Sinistu be, ezin.

Tagore

"Negar dagizu
joan dalako eguzki?
Malkoak begietan,
izarrik ezin ikusi".



falta nebazan, bidian galduta.

- Eta?
- An nongoen kurpillari begira-begira eta zoroetxeko leio batetik oska:
- Zer dok ain larri?
- Lau tornillo falta kurpilletik.
- Ori ez dok ezer.

Tornilloak falta

- Badakik zer gertatu jatan Bermio'ko zoruen etxearean?
- Barrurako billa ebillen, ala?
- Bai, zera. An nongoen zer egin jakin barik. Kurpil baten lau tornilloak

- Etorri ona eta konpondu egik.
- Orregaitik ez larritu; erreza dok.
- Erreza? Nola?
- Entzun: beste iru kurpil oietatik, kendu bakoitzari tornillo bat eta iru tornillokin lotuta geldituko da bakoitza.
- Bai, eta zer?
- Iru tornilloagaz lotu laugarren kurpilla eta orra laurak lotuta.
- Baña, orrelako gizon azkarra izan eta zergaitik ago or barruan?
- Zoroa naizelako eta ez tontoa.

Azken agurra


Biziaren gezurra,
eriotza ba'da
azken agurra...

Urrea gezurra,
gezurra indarra,
gezurra giarra,
koipea gezurra.

Nagusiaren urrea,
sendoaren indarra,
indartsuen giarra,
emazteki koipea.

Gezurra ederra,
gezurra jakintza,
gezurra eperra,
gezurra Jaxinta.

Bizitza gezurraren iturri
urduri
urte batzuen
egoitza.
Aizkenean
pitza.



Eme sal-erosketa
(Vida Nueva: 29-IV-95)

- Eme galdueña, ala?
- Ez, ba; gaur egun erli-giosetarako, lekaimetarako, dira eme-salerosketa oneik.
- Ia, ia; ondo entzun dot?
- Argi eidazu apur bat ori?
- Bai, ondo entzun dozu eta ondo esan deutzut: kanpotik eme gazteak ekarri geure monastegiak eurokin betetzeko.



ALBISTEAK

Orrelako astakeririk ez dot sekulan be entzun.

Saiatuko naz `astakeri' ori argitzen.

– Esan, esan.

– India'ko Changanacherry'ko Gongotzai katolikoa dan Joseph Powathil jaunak salatu dau Kerala estaduan gertatzen ari dana: Agentziak ari dirala neskatzak billatzen kanpotar Kristiñau-anadientzako, gero mojatxuen komentuetan sarzako.

– Eta, moja sartun nai ez ba'dabe, zer?

– Orixen argitzen dau ba, Gongotzaiak, onela esanez: erlijiosen bizitza aukeratzen dabela, India'tik kanpora errezago eta atsegiñago bizitzen dalako... Batzuek ekonomi aldetik be bai; baña, bai onek eta bai besteak, azkenean damutu egiten dirala...

– Baña, Gotzaiñak ez dau arrazoi guztia...

– Gotzaiñak nai dabena auxen da: orrelako bide bat artun baño lenago, egon deitezela iñora joan barik, erlijiosa bizitzarako beuren buruak prestatzen...

– Eta, alan be, aurrera nai ba'dabe?

– Orduan, eska dezatela Eliz-barrutietako Agintariei euren aopeko eta konseillua... Gongotzai onen Elizbarrutian urteero 150 gazte ei doaz atzerrietako Anaidi oietara...

– Au dok, au: emen iñor be ez ta an, ainbeste!

Koprogenak oraindik be

– Bartolo, aspaldi onetan ez deustazu Koprogenaren berririk eman.

– Oraintxen emongo deutzut iruko baten berri. Ona:

Zartatzen du Torkuato'k bere emaztea

apurtu daualako platera;
orrelako juez zuzenak, ordea,
joandan astean
apurtu ebazan lau dozena.



Arrazoi dau Platon'ek esatean
guztiok ditugula
ipurdiko zuloan illeak.
Ikusi ezin, arranea.
Ori egiten dute besteak.

– Bota beste bat.

– Or doia:

Don Serbando kexaz ebillen
gaixoa

kaka ebalako berakoa.

Kexaz ebillen Don Arturo elkorra

kaka ebalako gogorra.

Bere suertearekin

egokitu ezin

ez Pello eta ez Joakin.

– Filosofi asko dauke Koprogena onek.

– Ez dakit pilosopia ala ollosopia ete dauken. Ona irugarrena:

Goizetik ebillen Rufo jauna jolasean

larrosa gorrien artean.

Kaka-larriak emon deutso bat-batean.

Kendu prakak eta ipurdia aidean

larrosak utzi dauz kaketan

atzeko begiaren koloretan.

Esaerak dionez, gauzak ikusten dira

ikusmira dagozen begien neurrira.

Ezkontza austeko (DEIA: 30-V-95)

– Israel'go Gizarte Lanaren buru dan Rabin andereak dionez, zortzi egunekin billatzen dira ezkontza batean, naiko arrazoi ezkontza austeko.

– Arrane, arranea!

Nor dogu atso ori?

– Ezkontzetako arra-

kalak konpontzea da bere eginkizuna, ontzia erdibitu ez dedin.

– Eta, erdibi ez dedin, zer bide ipintzen dauz?

– Ekontzen diranean, ezkongaien buruak aldatzea eta, gero ondoren, aurrera segitzeko arrazoi egokiak billatzea. Orixen ai da benetako jakinduria.

– Eta, nola?



– Berak au erakusten dau: gaur eguneko ezkontza bien artean osatu bear dute senar-emazteak.

– Bat bitan, bezela?

– Bi, batean... Erdizka jaso bear dituzte, ezkontzako lan guztiak; berdintasun bat bear da ezkontza guztietan, pakea eta lasaitasuna izango ba'da bien artean...

– Labegeri'ren kanta gogoratu didazu: apurtuta zegoen ezkontza bateko senar-emazteeri eskeiñia, eta onela esanaz: Bear dugu alkar maite...

Alkar maitatzea bearrezkoa da; lenengo estropozoan edo beatz-topo egiten, etxetik kanpora ba'zoaz erremedio billa, zuenak egin du. Kito.



Zaude gurekin

Zaude gurekin

ene Jaun ori.

Arratsean gaude,

eguzkia

beera

doa

itxasoan sartzen...

illuna dator

gora...

Piztu egidazu

illetargia

or goian

ortzian
izar artean...
Zure Piztueraren
argia.

Bizkarra zuzen

—`Osakidetzak' esan digunez, jende asko ei dabil bizka-
rretik gaizki.
—Okerrak zuzentzeko. Berak ematen deuskuz aolkuak.
—Zer aolku?
—Eserita ba'zagoz, bizkarra zutik eduki, eserlekuaren
atzeari ondo emanda.
—Eta, eserlekua txikia ba'da?
Zeure neurrikoan bakarrik eseri.
—Eta, zutunik ha'nago?
—Orduan, urdailla sartun eta bularra atara, orpocan indar
egin eta ez oiñaren beazetan.
—Eta, etzanda ba'nago lo egiteko?
—Auspez ez lorik egin; aldamenka edo goraka zagoze-
nean, belaunak bildu.
—Eta, zutunik eta geldirik lan egiten ba'dot?



—Ez sorbalda aurrera
bota, zutik bizkar-ezurra
eta maia zeure alturako
egokia izan dadilla.
—Eta, ogeak egiteko?
Berdin; bizkarra
zutik eta belaunak bildu.
—Eta, eskobatzeko
eta ontziak garbitzeko?
—Bizkarra tente eta
eskoba-kirtenak luze, ez

makurtzeko.

—Beti bat esaten deustazu .
—Beti bat da: bizkarra ez aurrera makurtu.
—Eta, zapatak lotzeko?
—Zu ez makurtu; oiñak jaso al dezun gurtia.
—Eta, kotxean ibiltzeko?
—Berdin da: eserlekua zeure neurrirakoa eta aren kontra
gorputza tente, belaunak apur bat bilduta eta iztarrak baño
goraxeago.
—Bai, beti bat: bizkar-ezurrik ez okertzeko.

**— Itxas-lapurrak berriro
(DEIA: 7-6-95)**

—Itxas-lapurrak,
nun?

— Brasil'eko
Santos portuaren 13
kilometroko

onen
Martxoan 1.744.128
tonelada erabili
ziran kai orretan.



— Eta, zer-nolakoa da kanala ori?
— Basoak ditu beltzak aldamenetan eta an izkututzen dira
itxas-lapurrek.
—Bañan, orrelakorik zelan gertatu leizke gaur?
— Betiko leloa: kokaina bear eta kokaina galeztea da.
— Eta, zer arrapatzen dabe barkuetan?
—Jendeak berarekin daramana: videoak, argazki kamarak
eta orrelakoak; edozer gauza.
—Naiko mixeria da ori be...
—Auts `zurien', mixeria beltza.



**Oraingo ezkontzak
Ingalaterra'n**

— Zer ezkontza
berri dira onek?
—Iru milloi mutil-
zaar ei dagoz an.
— Eman be badau-
kagu kanta xeleb-
re bat: `Au dek zorione-
ko / ezkondu bearra /
ezkondu baño obeto /
bizitzen da mutil zaarra'.
—Ba, ezkondu be, mutil zaarraren antzera.
—Zer esaten dozu?
Ba, ezkondu bai; baña gero bakoitza bere etxean bizi.



EUSKALDUNAK ETA FUEROAK (V)

Erasoen bildur... Leen esana degun bezela, Santiago'ra erromes zijoazen aiek babesteko eta ornitzeko sortu ziran ainbat iri-berri... Baiñan ez zan ori naikoa, eraso-hildur au uxatzeko... Ba'ziran, bide ortatik kanpo, gogor eta basaki erasotzen zuten beste batzuek, eta auengandik babesteko sortu-bear izan ziran beste iri asko ere...

Eta auek ziran oraingo erasotzailleak: moroak, naparrak eta gipuzkoarrak.

Moroak gertu... Onela dio Bizkai'ko kondairak: "Balmaseda fué poblada hacia el año 735 por los naturales de su comarca, con el objeto de impedir que se internasen los moros por aquella parte de Vizcaya, reforzando con dos castillos que aún existen..." eta beste au Orduña'ri buruz: "en el siglo VIII, con motivo de haber llegado los moros a Miranda, erigieron los naturales del contorno de Orduña, un castillo y, al abrigo de él, una corta población que fué aumentando posteriormente..."

Naparrak erasoan... 1.253-urtean sortu zuan "Jakintsua" deituriko Alfonso erregeak Segura... Eta berak esaten digu zergatik sortu zuan ere... Ona bere itzak: "defender el pais contra las invasiones de los navarros, mal avenidos con Guipuzcoa por haberse unido, en 1.200, a Castilla...". Kezka berdiñean bizi zan Berastegi ere... Izan ere. bildurgarriak izaten ziran naparrak, gipuzkoarrenaurka, egiten zituzten erasoak... Eta Berastegi'koak ezin aaztu izan zuten sekula 1.321-ko Irailla'ren 19... Egun ortan sutu egin bait-zuten naparrak erri osoa, ondatu bertako soro guztiak, eta lapurtu aal-izan zuten guztia...

Berdin-antzeko erasoak jasan-bear izan zituzten Oiarzun'goak ere... Ona zer digun kondairak: "los muchos males que recibian en sus personas y bienes, de los malhechores del país, de los malhechores de Navarra y de tierra de LABORT y BAYONA". Eta betirako gogoangarria gelditu zan auentzako ere 1.476-ko Apirilla'ren 20... Frantzesak izan ziran emen, egun ortan mugea gaintitu... errian sartu... bertako elizari eta kanpantorreari su eman 80 persona barnean zirala... eta ibar osoa auts-biurturik utzi zutenak...

Jakintsua deituriko Alfonso... II-Teobaldo, Naparroa'ko erregeak, bereganatu nai izan zituan berriro Gipuzkoa eta Araba... Eta ari-ta-ari, ari zan, ori lortu naiean... Ori jakinda, Jakintsua deituriko Alfonso erregeak indartu eta babestu egin zituan Tolosa, Ordizia'ko Villafranca eta Segura Naparroa'kin muga egiten zutelako... Eta egin dezagun emen, gure kontakizun onen eten txiki bat: armen-bidez lortu eziñeko pakea, adiskidetasu-

nak lortu bait-zuan "aldi baterako bedere...". 1.256-urtean Donosti eta Ondarrabi eman bait-zizkion gure Alfonso'k, Kastilla'ko erregeak "a mi amado pariente e amigo don TIBALT (Teobaldo) rey de Navarra, de Champagna, etc.. con sus rentas de mar o de tierra...".

1.467-ko Urtarrilla'ren 14'an "emaitz edo doai berezi bat" (privilegio) egiten dio IV-Enrique'k Ordizia'ko Villafranca'ri ere: "en consideración a sus servicios e daños que sufría como pueblo de la frontera de Navarra".

Eta jokabide berdiña izan zuan ere, Araba'ko Salinas de Buradon'ekin (1.289'an sortua au) eta San Vicente de Arana'kin (1.337'an au): "porque son en frontera con Navarra".

Gipuzkoarrak erasoan... Onela dio, 1.355-ko Maiatzaren 6'an Tello Bizkai'ko jaunak, Markina sortzeko eman zuan agirian "para que pudieran impedir a los guipuzcoanos los muchos robos, males y daños que hacían..."

Eta beste-orrenbeste dio ere, 1.356-ko Ekainaren 27'an Elorrio sortzeko izenpetu zuan agirian: "funda la Villa con objeto de impedir a los guipuzcoanos que entraran a robar a la Merindad de Durango..."

Ala ere, Gipuzkoa'ren eta Naparroa'ren arteko muga, izan zan, garai artan, mugarik bildurgarriena eta gaitzotena: "gazkilleen muga" deitzen bait-zioten... Eta naiz-eta, mugaz bi aldekoak berdín-antzekoak izan, ala ere, naparkondalariak gipuzkoarren-gain botatzen dituzte gaitzakeriarik aundienak... Ona zer, eta nola, dion au Arturo Campion'ek: "En los confines de Navarra y Guipuzcoa, allá, a las faldas de Aralar, vive una ilustre familia, los LAZCANO... Llevan el saco del ladrón y la tea del incendiario... Son los prototipos de los malhechores y de los bandidos de YPUZCOA..."

Eta adiskide auek ematen dizkigu gero:

Etxarri-Aranaz... Aranaz-lurraldeko biztanleak Naparroa'ko Gobernari jaunarengana jo zuten 1.312-urtean... Eta au izan zan, azaldu zioten arazoa: "que hombres malhechores y foragidos hacían algunas entradas e infestaban el campo con robos, fiados en la cercanía de la retirada fuera del Reino..." Eta eskabide au egiten zioten: gaizkille auek bildu eta babesten ziran lekuaren inguruan, ba'zala gaztelu bat... Eta oso-ondo legokela, gaztelu orren babesean errixka bat sortzea: "cercaño a las madrigueras a que se acogían los malhechores había una casa fuerte, por nombre ECHARRI y que sería de mucho servicio del Rey, y bien de la tierra, que se poblase".

Eta olaxe jaioa de Etxarri-Aranaz...

Huarte-Araquil... 1.359-urtean izan zan sortua, eta arresiz inguratua Huarte-Araquil... An bildu bait-ziran, babes billa "de los malhechores de Ypuzcoa"an-inguruetako auzoak...

Araiz'koei. berriz, II-Carlos'ek murriztu egiten dizkie zergak 1.381-urtean "porque vivian en frontera con Ypuzcoa..." .

Eta Sant-Esteban'goak eta Basburua'koak au azaltzen diote erregeari 1.429-urtean: ganadu guztiak lapurtu zizkietela gipuzkoarrak eta 56 gizon baituak eraman... Eta ez ziturtela auek aske utzi "hasta que los razonaron (ordaindu) en 1.500 florines..."

Azpiroz, Lecumberri. Madoz... 1429-1.430, bi urte auetan 21 erri erre ziturten gipuzkoarrak Naparroa'n... Eta auetxek izan ziran erri oietako batzuek: Echarrri-Aranaz, Baraibar, Iribas, Gorriti. Errazquin, Azpiroz, Lecumberri. Muguiro...

Ala ere. ez ziran oiekin ase... Eta 1.444'ko Urrillaren 29'an Naparroa'n agertu ziran Juan Lopez de Lazcano eta Miguel Lopez de Amezqueta, 3.000 gipuzkoar lagun zituztela, eta Zavaleta'ren etxea eta Lesaca'ko erria sutu ziturten...

Leiza. Areso... Urte batzuek leentxeago, Leiza eta Areso menderatu zituzten tolosarrak gipuzkoar-talde batekin... Eta 1.430-ko Iraillaren 27'an Tolosa'ko Udalarren-mende utzi bear izan zituan Naparroa'ko erregeak bi errixka auek...

Larraona'ko biztanleak, bestalde. ez zioten erregeari pakerik ematen. Lazcano'tar jaunak Contrasta'ko gazteluaren jabe ziralako... Eta naiz Contrasta Araba'n egon, Larraona'tik gertu zegoala-ta. ez zuten etsairik ain-urbil nai...

Contrasta'ko gazteluaz gaiñera. bereak zituzten Lazcano-tarrak Alegria'ko eta Galarreta'ko gazteluak ere... Eta auek ziran gaiñera. Gipuzkoa'ko oñaztarren buru ere... Ba'zuten, hada, zergatik kezkatu...

Velate gaiñean Gipuzkoarren eta naparren arteko burruka auen ezaugarri ditugu, Gipuzkoa'ko ikurdian agertzen diran 12 kañoiak ere... Eta ona-emen zergatik: Burruka bizian ari ziran Naparroa eta Castilla... Eta Naparroaz jabetzen ari zan Alba'ko dukea Castilla'ren ize-nean... Eta Alba'ko duke onekin bat, ari ziran gipuzkoarrak ere Castilla'ren alde Naparroa'ren aurka...

Velate gaiñean egin zuten bein topo gipuzkoarrak eta naparrak... Eta gipuzkoarrak izan ziran garaille: "hallaron a los navarros e lucharon varonilmente e les tomaron toda la artillería que eran 12 piezas de metal... e las entregaron al Duque de Alba..." Juana. Castilla'ko erregeñak, 1.513-ko Otsaillaren 28'an, Medina del Campo'n izenpetu zuan gutun baten bidez, Gipuzkoa'ri, 12 kañoi auek, bere ikurdian ezartzeko baimena eman zion: Por ello, doy por armas a la dha Provincia las dhas piezas de artillería..."

Beotibar'ko burruka... Gipuzkoarrak eta naparrak zeukaten bien-arteko burrukak, Beotibar'en izan zuala bere

ginga esan dezakegu... Eta gipuzkoarrak izan ziralako garaille... Eta kondalari batzuek esaten digunez, 800 ziran burruka ortan parte artu zuten gipuzkoarrak eta 70.000 naparrak...

Campion ez dator noski, kontakizun onekin ados... Eta au, onela zabaldu zuan Zaldivia Batxillerra, "enturbiador y agitador de la corriente histórica" izan zala soilik...

Eta onela kontatzen digu Campion-berak gertakizun au, asiera asieratik arturik: Garai artan, 1.321-urtean. naparrak Gipuzkoa'n, gauaz sartu, eta astakeri eta ilketa asko egiten ziturtela... Eta Gorriti-gazteluan babesten ziralako gero...

Gipuzkoarrak orduan, gaztelu orretaz jabetzea erabaki zuten, eta "il-edo-bizi" ekin zioten bein gazteluaren aurka... Eta orduterdiko burruka naikoa izan zuten gazteluaz jabetu eta bertako napar gurtiak erailteko...

Gipuzkoarrak Gorriti-gazteluaz jabetze orrek, bildur-garrizko ikara sortu zuan Pamplona'n... Eta bertako gobernari zan Ponce de Morentaina'k jendetza aundi bat bildu, eta Gipuzkoa'n sartu zan itxukeri eta gogorkeri aundiak egiñez: "Cargó sobre la villa de Beràstegui y la entró por fuerzas de armas y después de haberla saqueado, la abrasó..."

Tolosa'ra jo zuan andik, eta Beotibar'era iristean, Larrea'ko jaun zan Gil Lopez de Oñaz zeukan zai. Eta ango parajeak ondo ezagutzen zitulako, errez menderatu zituan naparrak. baiñan ez kalterik eta eriotzarik jaso-gabe...

Gipuzkoarrak ospe aundiegia eman diote ta gertakizun oni, Campion'en iritziz: 800, 70.000-ren aurka... Ona nola bukatzen Juan Campion'ek kontakizun au: "Si Navarra hubiese sido capaz de reunir, en cualquier periodo de su historia. 70.000 combatientes, la Historia de España seria otra..."

Leturia aitaren ustez ordea, Beotibar'ko burruka onek sagaratu egin zituan Oñaz-tarrak eta Loyola-tarrak. Bi auek izan bait-ziran bertako buruzagiak: Gil Lopez de Oñaz eta Juan Lopez de Loyola...

Noain'go burruka... Labrit-etxean zeuzkaten ipiñiak naparrak beren itxaropen guztiak... Etxe ontakoak izango ziran, naparren ustez, Naparroa, erasoetatik askatu. eta gora jasoko zutenak... Eta oraingo-ontan ere, beste askotan bezelaxe, gipuzkoar bat izango zan, naparren itxaropen auek. "ankaz-gora" botako zituana. eta Castilla'ko gudarozteari garaipena emango ziona: Juan Perez de Anzondo izango zan gizon au. 3.000 gipuzkoarren buruzagi...

Naparroa'ren eta Gipuzkoa'ren-arteko burruka auek aztertu ondoren, galdera au egiten dio Campion naparrak, napar guztien izenan, here buruari: "Debemos lanzar un grito de maldición a Guipuzcoa...? "... Eta au da here buruari ematen dion erantzuna: "No...! Porque los guipuzcoanos... estaban unidos federalmente a Castilla, y cumplieran con su deber auxiliándola en sus guerras..."

EDESTIA

Campion'en ustez, beste ontan zegoan bien-arteko burruka auen zergatia: Gipuzkoa, Naparroa'gandik aldentzean, 1.383 urte alkaturik bizi ondoren... Eta biotza mindurik onela bukatzen du Campion'ek arlo au: "Además, como vamos a vituperar a Guipuzcoa, si aquí, en Navarra, teníamos un partido que era castellano... si Pamplona y otras ciudades fuertes abrian sus puertas al duque de Alba...?"

Azken batean: naparren bildur ziran gipuzkoarrak... "Gaizkille talde bat" zan Gipuzkoa naparrentzat... eta bizkaitarrak ere, gipuzkoarren erasoetatik aske ikusi nai bait-ziturten beren buruak...

"Romparamos el frio granito de odio... Donde ha existido más cruel enemistad que entre los barrios de Pamplona...? "egiten digu deadar Campion'ek... eta ixtorio eder bat ematen digu deadar Campion'ek... eta ixtorio eder bat ematen digu ondoren euskaldunok gure biotzak jaso ditzagun..."

1.638-garren urtea zan... Esia zegoan Ondarrabi... Eta an joan ziran esi ori austera, gipuzkoarrak eta naparrak alkaturik... Eta an agertu ziran ere, 800 bizkaitar Juan Etxaburu buru zutela, eta 300 ^grabar... Eta garaipenaren jabe egin zituan alkartasun onek...

Ona, Euskal-erria'k eta euskaldunok sekula aaztu bear ez genduken alkartasuna...

**Donato Arrinda
Anastasio Albisu**

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarriarauak oneik dirala:

Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearco dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuñak asmaturokoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagi eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

Sariak lau izango dira:

- 1.^a 40.000 pezeta.
- 2.^a 30.000 pezeta.
- 3.^a 20.000 pezeta.
- 4.^a 10.000 pezeta.

Ipuñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

AMABOST EGUN URGAIN'EN

Itzaurrea:

Ondoan aurkituko dozun irakurgaia euskeraz inoiz idatzitako leenengo polizigiroko elebarriaren bizkaieratutako laburpena dozu. Bere egilea Joseba Andoni Loidi Bizkarrondo da.

Loidi 1916. urteko dagonilaren 22an Oreretan jaio zan. Osakaikintza, optika eta oskintzan lizentziaduna da. Gaur egun Irunen bizi da. Bere elerti ekoizpenaren leenengo liburua eta bakarra da gaitzat artu dogun au. Euskaltzaindiako kidea da izan.

'Amabost egun Urgain'en' elebarri au 1955. urtean. gipuzkeraz, idatzi eban Loidik. Euskaltzaindiak eragindako elerti leiaketa batera aurkeztukeran, oorezko aitamen berezia irabazi eban Loidik. Literatura moeta onetako leenengo elebarria izankeran eta, zeozelan, orainaldiko elerti -giro eta norabideetan ateak zabaltzeagaitik, euskaltzain izendatu eben.

Bada, elebarri onek, berak sortzen dau elerti moeta barria euskal idaztien eremuan; ordurarte, euskal idaztietan, beintzat, leenengo polizigaidun elebarria izanik. Goi-mailako elerti sakona izan ez arren, euskal elertian idazlan moeta orretarako asimasiak izateko, gaia ondo autatuta dago egon. Ospe ta balio aundi-aundikoa izan barik, irakurle arruntak errez irakurriko dauan idazlana da. Berak darabilan euskera eredu erreza eta bizkorak ez dautso inori ezelango sosterrik sortuko, aberastu baino, irakurgai au beingo baten gogoz irakurri daian.

Dakartzugun laburpen au irakurri ostean, elebarri bera irakurteko gomendioa emongo neuskizu. Dana dala, on egin daizula!

Bizkaierazko laburpena:

Ilunabar euritsu, otz aretan bajoian, bada, Txomin kalerik kale errian zear; bere aurpegiak, euriaren ezetasunak baino, zeozer gogorak eragindako bildurrez dardarea erakusten ebal.

Txomin, gizon apala besteko maratz, erriko lurperatzailea genduan. Bere bearlekutik, betebearrak bertan beera izteko zeozerk alan beartu izan baleu lez, jantzi-tresnok oraindinokarren aldean eroazala, Erriburutarren etxerantzabizkor abiatu zan. Etxeko jauna kanpoan egoala, neskameak artu eban eta etxean sartu eragin eutson, etxeko andrearen bila joian bitartean. Txomin artega, urduri samar irudian. Egongelan itxaroten egoan bitartean, bere buruak erabilanak bor-bor egiten eutson, dardarearen-dardaraz, nonbait. Bere barrua arik arinen ustu bearrean egoan eta.

Maritxu, etxekoandrea, agertu jakonean, Txominek

barruan eukan guztia blaustada baten bota eutson, arean da: Egurmendi zaarra il zala eta urrengo egunean ilobiratu bearke ebela eta, bada, ilobia zabaldu eban Txominek eta aan!, ildako erranaren ilkutzako ool batzuk askatuta egozan, andra orren ilotzaren bekokian tiro batek eragindako zuloa ikusi ebala!!

Entzundakoan, Maritxu urduritu egin zan. Ez eutson entzundakoari, baina, sinisgarritasunik emon gura. Ezin, Egurmenditarrek, zirana— zirala, olakorik egin aal izana! Ma ri here gizonari dana esateko itxaron bearko eutsoela erantzun eutsonean, Txominek, orduantxe bertantxe zeozer egin bearko ebela esaten ekin eutson, urrengo egunean Egurmendi zaarraren eleizkizunak izango ziran eta.

Onetan egozala, Larrola jauna erriko osagile barria agertu zan Erriburutarrenean. Maritxuk, artegasunaren artegasunez Txominek azaldutako guztia esan eutson. Larrolak poliziari deitzeko aolkua emonkeran, Maritxu Donostiako bere senarraren laguna zan Garaidi ikertzaileaz gomutatu zan eta jarraian, jazotakoaren guztiaz jakitun ipini eban. Onek bereala bertaratuko zala ziurtatu eutson. Au etorri bitartean, Larrola osagileak gaiso batzuengana aide egin eban, Txomin bertan urduritasunez beteta hegira lotzen zan artean.

[Ikusitakoa— buruan erabilan Txominek eta apurka-apurka bildurra sartzan asi jakon. Esan egin izanaz damu eban, baina, bestetara txarrago izango zala ebatzi eban, azken baten. Noiz edo noiz Garaidi agertu zan eta etxekoandregaz, Maritxugaz, batu bestean laster, azken au kontu kontari asi jakon. Bitartean, Txomin gizagaixoak sukaldean itxaroten eutsen.

Garaidik Txominen sinisgarritasuna zalantzan ipini eban, ea ikusi ebana oker ikusi eban itaundu eutson Maritxuri. Onek, ostera, Txominen zintzotasuna goitik beerakoa zala erantzun eban.

Azkenik, Txomin eta Garaidi alkartu ziranean Maritxuri esandako berbera Garaidiri, be, barriztu eutson arek. Jarraian, biok ilerrirantza abiatu ziran, Txominek ikusi ebala esandakoa egiztatu guran. Urten orduko, baina, eldu barri zan Larrola osagilea batu jaken.

Ilerrirantzako bidean joiazala, Munube zalakoagaz egin eben alkar, berau andik etorrela, aurki. Munube leengo erriko osagilearen lobeazala. Larrolak Garaidi eta Munube alkar aurkeztu ebazan. Au itzita ilerrirantza abiatu ziran, barriro. Aan aurreratu jaken Txomin euren hegira egoan. Egurmenditarren ilobira urreratu ziran irurok eta Txominek esandakoa, bereala, euren begiez ikusi eikeen, argi ta garbi.

Larrola osagileak bere eritxia jakinazo eutsen: orduan zala amar urte, gitxienez, jazo eitekeala azalduz. Ilerritik urten baino leenago, Garaidik Txomineri aginduak emon eutsozan, arean da, ilkutxea ugertutako untzeek barriro josi eta ezer ikusi izan ez baleu lez egin eiala. Larrolari, barriz, ikusitakoa agopean euki eiala eskatu eutson.

ELERTIA

Ilerritik Txominen etxera abiatu ziran. Garaidi onen etxean sartu zan, hildurrez beteta egoan Txominen emaztea, Inaxi, lasaitzeko asmoz. Onetan ziarduala, Inaxik, egun aretako iluntzean Pirmin Txomin eske etorri jakela autortu eutson Garaidiri. Pirmin Egurmenditarren morroi izandakoa zan eta Egurmendi zaarraren ilobia atontzekotan etorri ei zan.

Donostiako etxera biurtu baino leenago, Erriburutarreneko Maritxu guztiaren jakitun ipini eban Garaidik. Txominek inoana egia zan!

Garaidi apalondoan etxean lasai-lasai egoala, eskuen artean eukan arazoa batetik bestera erabilan buruan. Alako baten, Pirmin, morroiaren izena, bururatu jakon. Pirmin zan, bada. berarentzako susmagarriena eta. Au burura etorri bestean laster. larritasuna sortu jakon bere barruan. Etxetik urten eta abiada otsean Urgain erantza jo eban. Txomin arriskupean egon eitekean eta. Bidean joiala, Pirmin Tominen etxera zergaitik joan zan itauna erabilan buruan. Erailea Pirmin balitz! Pirmin'ek, Txomin'ek ikusitakoaren barri izan baleu, Txomin'enak egingo eukean eta. Oneri ezer txarrik jazo baino leen. berau jagoteko, arik armen Urgainéra eldu gura eban Garaidik.

Ara eldutakoan autoa erriko kanpoko aldean itzi eta oinez joan zan Txornin'en etxerantza. Urreratzean, ate baten kirrinka igarri eban eta alboan egoan txakurzulo antzerako baten ostendu zan. Pirmin bera izan eitekealakoan edo. Oinkada otsak gerorago eta urrago entzuten asi zan eta zana, Txominen etxera ondoratukeran, Txomin bera zala ikusi eban. Lasutu zan Garaidi, arean baten. Bada, Txomin, artutako betehearrek egin ostean, etxeratu zan. Txomin ondo egoana egiztatu ta gero, gaua emoteko onen etxera urreratu zan Garaidi. Senar-emazteak larritu ez eitezan, autoak matoraren bat euki ebalta eta non lo egitekorik ez eukanez, eurenaren ostatu eske joatea hururatu jakola esan eutsen. Bertan. Inaxi Txominen andreak oea atondu eutson, ilerri aldera egoan etxeko logelan, ain zuzen be. Garaidi, beraz, au ikusikeran pozik hamo pozago lotu zan, alan bada, gau osoa ilerria zelatan emon eikean eta.

Alako baten, goiz aretan goiz, gizon sendo, ondo jantzitako bat agertu zan etxe inguruetan, ara-ona hegira egoala. Garaidik egoan logelaren leio zirrikitutik aren ibilerak zelatzen ebazan. Gizon a ilerriko ateraino urreratuz, ate a zabalzen aalegindu zan. Atea. baina, itxita egoan. Garaidirentzako badaezbadako emoten eban gizonaren barri jakiteko Inaxirengana jo eban. Inaxik bera ikusita, hereala ezagutu eban: Pirmin zan! Orduan. Txomin berarengana erakarriz, ilobia berak agindu eutson lez ia itzi ebalta itaundu eutson Garaidik. Baiezko erantzunagaz, Txomineri urten eiala esan eutson, Pirmin Txomin beragaz alkartzeko asmotan eta ilerria joateko eskatuko utsolakoan. Alan esan, alan, jazo. Pirmin, Egurmenditarren morroi izana, zaarraren ilobia atontzen etorri ei zan eta!

Ara joaten ziranean, Garaidik ostenduta urretik jarraitzen eutsen, Txomineri ezer jazoko eta. Amaitutakoan, Pirminek Txomineri eskerrak emon eta aide egin eban. Ez ei eban ezer susmatu, aurki. Txomin eta Garaidi, baxotxa bere etxera joan ziran, Garaidi, barriz, poz baten bajoian joan be. Korapiloaren arimustur bat baeukan eta!

Urgain'go Joxe Jokinen ostatuan gosaria artzeko asmotan

sartu zan Garaidi geroago goiz aretan, Erriburutarren etxera joateko goizegi zalako, nonbait. Gosaria jaten ziarduala, aurreko gaueko Txomineri buruzko arazoa barriro jatorkon burura. Uts itzela egin ebana! Pirmin, be, burura jatorkon. Zertan urreratu zan ilobira? Egurmenditarrek errian euken on izatearen ospe aundia, be, gogoratu eban...

Gosaria amaitu ta Joxe Jokin ostatuko ugazaba zaarra tirrikitarra alboratu jakon. Joxe Jokin barritsu eta nontzebarri utsa zanez, berba egiteari eragoion, lotu barik, eragon be! Garaidiren burukomina! Berbaren berbaz, Joxe Jokinek, Egurmenditarren izena aitatukeran, Garaidi erdi lotan egoala iratzartzea lortu eban. Eskerrak, alako baten Munube agertu zana...!, aurreko arrastian Larrola osagileak berari aurkeztua, ain zuzen. Munube agertu eta eurenaganatukeran, Joxe Jokinek biak bietara itzi ebazan. A zan bakea! Berau joan bestean laster, Munube ondoratu jakon Garaidiri. Urduri sainar irudian. Garaidigaz nai ta naiez berba egin bear ebala esan eutson, gero.

Munube'k ez ekian bere salaketea irudiana nondik esaten asi. Artega sainar egoan.

Bere osabea, Urgaingo osagile zaar izandakoa, eta Egurmendi zaarra txiki-txikitatik lagun minak izan zirala zirautson.

Urte batzuetan Urgain'en bizi izan zan Pagodi izeneko gizon gaztea, egun batetik bestera eta inork ez ekiala zelan, betiko ostendu zan. Bere bila ibili ziran, baina ez eben aren lorratzik, be, aurkitu. Munube'ren osabeak, barriz, il zorian burutik joanda egoala, Pagodi aitatu eta Egurmendi'ren errua bein ta barriro autortzen ebalta jakinazo eutson Garaidiri.

Au guztiau zala eta, Munube'k, ordainketearen orde, Pagodiren bilaketearen ikerketea asi eitela eskatu eutson Garaidiri.

Garaidik Munube ostatuan itzi eta Egurmendiren iletetara abiatu zan. Bidean Munubek esandakoa buruan erabilan, naasketa barri a zer danganino ete zan!, bere buruari itaunduz. Eleizaratukeran, Txomin eta baita Pirmin be bertan ikusi ebazan. Pirminek bera ez ikusteko eran jarri zan Garaidi, a obeto jagotekotan edo.

Iniaki MARTIARTU
1995.eko bagilan
(jarraituko)

EUSKAL ASTEA BIZKAIAN "EUSKERAZALEAK" ERATUA

NON: Eskolapioen ikastetxean (Alda.
Rekalde, 19).
NOZ: 1995'eko azilla 13'tik 17'ra.
ORDUA: Arratzaldeko 8'rak.

GAIK ETA IZLARIAK
(URRENGO ZENBAKIAN AGERTUKO DIRA)

ADRIAN ZELAIA

Aurtengo Garagarrilla'ren 7'gnean, goratzarre ederra ospatuz, Bizkai'ko Aldunetxean, Manuel Lekuona Saria Adrian Zelaia'ri emon yakon. Izan be, ondo irabazitako ospakizuna, ainbeste urteetan zear, Legezitiaren eta bere erriaren aide aaleeindu danarentzat.

Gizon onen nortasuna ondoen adierazoteko, ona emen, bere bizitzaren gora-beera batzuk:

Adrian Zelaia'ren aita, Zeberi'ko basetze batekoa zan, eta amalau urtez Bilbao'ra etorri zan, jangaitegi baten lan egiteko, eta emendik, Sestao'ra aldatu zan "Aurrera" ize-neko lankidetzaren jarduteko.

Ama. Leonzia Ibarra, Begoña'ko Zurbaran auzokoa.

Asiera baten, Adrian'en gurasoak Lutzana-Barakaldo'n bizi izan ziran, baiña geroago Sestao'ra aldatu ziran.

Sendi onek sei anai-arreba izan ebazan.

Adrian, 1.917 urtean jaio zan, eta 1.933 urtean batxilerra amaitu eban. Gora-beera batzuen ostean, Maisu-ikasketak asi ebazan, eta oneik amaitzeko azken ikastaroa peitzen yakonean, emeretzi urteko zala, 1.936'ko gudea etorri zan.

Gordexola gudataldean izena emon eban, baiña geiso gertaturik, egoera onetan frankotarrak Bilbao'z jabetu ziran. eta onen ostean. gudea amaitu arte España'tik ibilli zan "Flechas Negras" bateko guda-taldean.

Gudea amaituta. Legegizon-ikasketak asi ebazan, eta 1.942 urtean baimendu zan. Onen aurretik, maisularitza-ikasketak amaitu ebazan. 1.946 urterarte, Trapagaran'en maisutzat jardun eban, baiña orduan ieiaketak egiñik, Galdakano'ko epaikeria billakatu zan. 1.949 urtean, beste leiaketa baten ondoren, Bilbao'ko erri-epaikeria izendatu izan zan. 1.950 urtean, Mari Cruz Ulibarri'rekin ezkondu zan. eta arrezkero lau seme-alaba izan ebezan. 1.951 urtean, Deustu'ko Ikastola Nagusiko irakasle billakatu zan. eta 1.952 urtean, Deustu'ko Komertzi-Ikastolakoa.

1.956'an Madrid'eko Ikastola Nagusian, "Zibil Legearen Auziak Bizkaia"n Cum Laude eritxiaz lortu eban.

1.976 urtean, Bizkaia-Gipuzkoa'ko Erabilte Bereizia aztertze. onulari izendatu eban. 1.970 urtean Eusko Ikaskuntzako egin eban. 1.985-1.990 urteetan España laterriko "Epaikaritzaren Batzorde Orokorren" maikoa izendatu izan zan.

Zenbatu-eziñak dira, artu ebazan jardunak gure erriaren alde lan egiteko, baiña nik emen aipatuko neukez, euskeraren aide burututakoak. onein artean bat, "Euskera-zaleak" euskeraren aldeko erakundearen aide egiñikoa.

1.967 urtean, gure izkuntzarekiko giroa etsaitasunez beterikoa zanean, Jesus Olega ta beste lagunekin, "Euskera-zaleak" alkartea sortu eban. Aldi zaillak ziran, baiña izkuntzaren aldeko maitasunak eraginda, oztopo guztiak garaiturik, euskeraren aldeko erakunde ori sortu eban, eta ordutik ona zenbatu-eziñak dira euskera ikasi dabenak. Gure erriak zor andia dautso Adrian Zelaia'ri, baiña urte gogor areitan euskeraren aide egindakoak, nire ustez, Adrian adiskidea benetako euskaltzaletzat bereizten dau.

Asko dira euren erria maite dabenak, baiña maitasun onegaitik. euskera ikastera eltzen diranak. aipamen berezia merezi dabe, eta Adrian Zelaia'ri egindako goratzarrean, agirian ipiñi gura dot oroz gain, euskeraren aide egiñiko bere aalegiña.

Goratzarre orretan Adrian'ek berak euskeraz emonda-ko itzaldia, zirrara batek artuta entzun neban, bizkaiera garbi, errikoi. eta errazaz esandakoak biotz-barruraino sartu yatazan-eta. Ona emen. euskotar baten bizitza eredugarria, eta andia izateko, gure erriari laguntza damotsana.

Zubiri'tar Iñaki

JESUS OLEAGA'RI OMENALDIA

EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ALKARTEAK

JESUS OLEAGA'RI OMENALDIA EGIN DAUTSO

ARRATIA'N (95-9-23)

URRENGO "ZER"EN BARRIAK

¡ZORIONAK!



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

ELEIZEA, GOTZAIÑAK, EUSKALERRIA

BARRUKO MIN AUNDIA

Aspaldiko egunetan barruko min aundi baten menperatzen nau eta ezin itzi barruko min ori gure irakurleai agertu barik.

Euskaldunok eleizkide onak izan gara eta ebanjelizatze-lanean erantzun ona emon dogu. Berrogei ta amar gotzain baiño geiago dira munduan lan orretan gaur diardenak eta ainbeste abade, lekaime ta laiko. Guretzat ostera ez dago gotzain euskaldunik. Antxiña eta orain kanpotarrak ezarten dauskuez. Zergaitik baiña, orrelan jokatu Eleiza Amak?

Eleizeak ez dau inoz aintzat artu gure erria, Añoberos gotzainaren agiri baten izan ezik. Eta orduan be aurrean erabilli eben.

Gudalditik onako kondaira labur bat egingo dot arlo onetan.

MATEO MUXIKA GOTZAIÑA TA 500 ABADÉ

Guda aurrean Gotzain euskalduna geunkan Gasteiz'en. Mateo Muxika. Erkalak erbesteratu eban lenengo eta frankotar-rrak gero. Eleizeak ez eban bere gotzainaren aide jokatu.

Muxika Gotzaiña erbestean egoala, beste 500 abade bialdu ebezan atzerrira eta beste 16 il. Zergaitik? Euskaldun lez agertu ziralako. Nortzuk eragille? Eleizeagaz bat eginda egozan españatarrak. Gaiñera, Euskalerriko eleizea politikara sartzen dala esango dauskue!

Euskal agintariak Erroma'ra joan ziran, Aita Santuagaz alkar-izketa egiteko gururiaz. Baiña ez ebazan artu Aita Santuak edo ingurukoak. Zergaitik? CEDA españatarren alderdi politikuagaz alkartzeko eskatu eta ezetza emon ebela. Nor sartzen da politikan?

Oraintsuago egin da beste ikustaldi bat Erroma'ra Aita Santuagaz berba egiteko, eta erantzuna bardiña izan da.

LAUZURIKA GOTZAIÑA

Muxika gotzaiña erbestean egoalako, Lauzurika jauna ekarri euskuen Gotzain-Orde lez. Gizon ederra, izlari ona, aundi-zalea, baiña frankozale amorratua eta gure zapaltzaillea. Noizean bein euskera berba egiten eban, baiña euskaldunen aurka beti.

Bere ardurapean asi zan abadetzarako gure gertakuntza eta gaztetxu giñala benetan maite gendun, opor-egun batzuk be emoten euskuzan-eta. Baiña ez berak eta ez urrangoak ez euskuen itzi inoz euskeraz berba egiten, ez euskuen euskerarik irakatsi, ez euskuen euskaldunak garala be esan. Beti esaten euskun Gotzain-orde arek abadeak ez dauala sartu bear politikara eta bera samaraiño politikan sartuta bizi zan.

BALLESTER GOTZAIÑA

Muxika'k bere gotzaintza itzi ebanean, Murtzia'koa zan Carmelo Ballester bialdu euskuen. Biotz oneko gizona, baiña euskal-usaiña bera be kendu nai ebana. Onen bidez lortu eben españatarrak eleizbarrutia iru zati egitea. Beti Eleizea España'gaz eta gure erriaren aurka. Mingarria!

IRU ELEIZBARRUTI

Euskaldunok aldi aretan izen ona ta ospetsua geukan España'n: Eleizbarruti aundia eta bizia, Seminario ospetsua, abadeak ugari, geroago geure misioi-arloak munduan. Eta, gaiñera, eleizbarruti bakarra izatea euskaldunok alkar ezagutzeko ta maitatzeko bidea zan. Eta ori ezin ikusi gure betiko arerioak. Orregaitik, eleizea lagun ebela, gure eleizbarrutia iru zati egin eben eta Seminarioa sakabanatu.

Bear ba'da eleizbarruti barriak sortzea gauza egokia zan, eleiza-aldeetik, baiña ori eskatu eta lortu ebenak euen elburua gure erriari eutsoen gorrotoa izan zan, eta orretan Eleizea lagun izan eben.

Ondoren lez iru gotzain etorri jakuzan eta irurak erbeste-koak: Madrid'eko bat, Aragoi'ko bat eta Katalunia'tar bat. Iru-rak españatar sutsuak eta Euskalerraren arerioak. Beste guztiai eskatzen euskuen politikara ez sartzeko, abadeen gauzea ez dalako, eta eurak?

Eleizbarrutiak Goi-Gozain baten ardurapean jarri bear ziran, eta barriro batasuna lortu ez daiten, Iruña ta Gipuzkoa aide batera eta Bizkaia ta Araba bestera banatu ebezan. Eleiz-arazoagaitik? Ez. Politika-jokoa zan eta da.

PABLO GURPIDE GOTZAIÑA

Bilbao'ra etorritako Gotzain madrildarra Zaragoza'ra eroan ebanean, Bizkai'rako Gurrupide Gotzaiña bialdu eben, Madrid'eko Ministroen artean aukeratu eta Aita Santuak onartuta. Gotzain au oso-osoan jarri zan españatarren menpean, poliziak lagun ebazala. Inñon diranak egin ebazan euskerearen aurka eta euskal-zaleak zigortzeko.

Naikotu giñan eta ekintza gogorak asi genduzan bere aurka. Abade-talde baten izenean, bitan joan nintzan Nuntzioagana (baten Donostira, bestean Madrid'era) gotzain ori kentzeko eskatzen eta Gotzain barriaren autagaien izenak eskintzen. Gero Erroma'ra be bai. Erroma'n nengoala il zan, euskalduna, baiña euskaldun txarra zan Pablo Gotzaiña.

Ekintza gogor erreikaz eta giroa lagun zala, lortu gendu gotzain guztiak euskaldunak edo jatorriz euskalerrikoak izatea, orrelan igaro doguz urte batzuk. Eta orain? Barriro lengora. Ona emen Iruña'n eta Bilbao'n barriro kanpokoak, erdeldunak, Gas-teiz'en naparra baiña erdelduna.

ETA ORAIN ZER?

Jasan-eziñeko barrumin aundi bat daukat. Ez dakit zer egin. Geroago ikusi bearko da.

Aita Santuak izkuntza asko erabilten dauz, baiña eskatu arren be, ez euskerea, mundua agurtzen dauanean. Ikertzen dauzan lurraldeetan lurrari mosu emoten dautso, baiña ez Euskalerrikoari. Ez gaitula maite dirudi!!!

OLAZAR'tar MARTIN'ek

ZORIONAK ETA ONDO ETORRIA BERORRERI

Bizkaiko gotzai barri jauna:

Gutun au badakit ez dauana berorrek ulertuko, euskerarik ez dakialako, baina berorren gotzai laguntzaileak ez dau bat ere arazorik izango itzultzen bere euskaltzain eta euskerazale bidea ezagutzuz, batez ere bizkaieraren eremuan. Idazten nagoan une oneetan pil-pilean dago oraindik berorren izendatzearen barria. Ainbat arazo, eztabaida eta zeresan sortu dauz aide guztietatik izendatze orrek, aurkakoak izan diralarik geienak, batzuk errespetu aundiaz adierazotakoak, ez ainbestegaz beste batzuk.

Ni neu ere bertoko baten aldekoa izan naz, etxeokak obeto ezagutzen dauz sukaldeko arazoak eta, baina nire asmo eta gogoak, beste askorenak moduan, eta Eleizaren agintarien gogoak alkarren ondoko bideak diran arren(edo izan bearke leukie beintzat), ez dira aurkitu, berori dogularik gotzai barria.

Bearbada nor nazan galdetuko deutso berorren buruari. Ni ez nozu aurkituko eleizako aurrekaldeko jesarleketan, atzekaldeko korupeko iluntasunean egoten dan orretariko naz eta. Berorrek dakianez eleizara doazenak iru taldetan sartu leitezke: Jainkoa ikusten doazenak, Jainkoak ikusi daiazan doazenak eta "Jainko guztiek" (beste guztiek) ikusi daiezan dozenak. Korupean eskutatzen garanok batzuk inork ez daiazan ikusi (Jainkoak, dana ikusten dauan berak, ere ez) egoten dira, eta beste batzuk eleizako urteeratik urbilen dagoen lekua dalako. Ez nauzu, ba, politikari ospetsua, ez eta errigizon entzutetsua; oinezkoa nazenez eta ez iñola ere "zalduna", ez dot iñondik iñora ere itxaroten nik esan bearrekoak inorengan egon-ezina sortuko dauanik, eta askotaz gitxiago berori minduko dauanik.

Egoera latza susmatzen dauala berorrek uste dot, eta arazoa ez dot uste berori danik, izendatzearen ardura euki dabenak baino. Gauzak naas-

tatu eta lekutik kanpora atara direla uste dot, eta ixildu bearreko askok berba egin dabela, berba egin bearreko batzuk aorik zabaldu ez daben arren. Dana dala gertatutakoek emon deuskuenez jakituria, oraingoz ikasita euki bearke genduke ikasgaia, gure arteko bat berorren antzerako egoerea jasan izan bear ebalako, ain zuzen askok itxaropentsu gotzai barrizat gura genduan Juan Uriartek. Berau ere Zamorara joan zanean (aurre-rako denporetan joan bearrean eroan egiten ebezan errialde orretara) ango batzuk agertu eben jarrera ez jakun bat ere atsegin izan eta bidegabetzat jo genduan. Ez genduan ulertzen, ez eta onartzen, euskalduna zalako zamoratar batzuk esaten ebezanak. Baina urteak aurrera joan dina eta ordukoak aaztuta dagozala dirudi, naiz eta Juan Marik berak ez dauazan inoiz aaztuko, eta ziur nago orretarako aleginak egin dauazala.

Berorren asmoak entzun edo irakurri ondoren, bertoko egoera ulertzen eta berari moldatzen saiatuko dala jakin izan dogu, orren itxaropena daukagularik, artaldea ezagutzen ez dauan artzainak ezin daualako jakin zenbat ardi daukazan, ez zein ardi falta jakon, ez nondik nora dabilzan, ez beste ezer. Gainera kontutan izan bear dau berorrek zuzentzen dauan artaldeak ez daukala txakurrik (eta bear ere ez). Ezin dogu eskatu berorren izaera eta nortasunari uko egiterik, eskatzen doguna berorreri zor deusagun begirunea eta errespetoa geuri ere ala izatea, artuemonak errezagok izan daitezcan eta ondo ulertu gaitezcan.

Kondaira aldetik Bizkaia, batez ere azkenengo mende onetan, etorkinen lekua izan da, ainbat kanpotar eldu jakularik. Orain artekoak ondo etorriak izan badira berorri ere izendatzeagaitik ZORIONAK emonaz gain ONDO ETORRIA dinotsagu; zabalik daukaz gure ate eta biotzak.

Enrike Itxasalde



Betidanik.

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK